

## **FEDME PROZEDURAK- SEGURTASUN HITZALDIA**

Edozein jarduera **segurtasun hitzaldi** batekin hasi behar da, bertan arduradunek abisu egokiak eman eta parte-hartzaileak gerta daitezken arriskuak eta beraiengandik jaso nahi den portaeraz informatzeko; ondorengo puntuak barne:

- Arrisku posibleen errepasua.
- Segurtasun arauak eman.
- Larrialdi protokoloak azaldu.
- Jarduera burutzeko gomendioak.

Segurtasun hitzaldi hau egiteko jarraitu daitekeen eskema bat ondorengo hau izan daiteke:

### **1. Sarrera**

- Gida/arduradun eta ekipoaren beste partaideak aurkeztu.
- Parte-hartzaileei hitzaldi honen garrantzia eta bere garapen egokia bermatzeko duten eginkizuna azaldu.
- Komunikazio asertibo baten beharra azpimarratu.

### **2. Jardueraren ezaugarriak**

- Jarduera aurkeztu eta momentuzko baldintzez informatu.
- Arrisku posibleez informatu eta hauek deskribatu.
- Ekipamenduaren erabilera egokia azaldu eta errepasatu.
- Jardueraren berezko segurtasun teknikak erakutsi.
- Larrialdi kasuetako prozedurak azaldu: norbait galtzen bada zer egin...
- Botikinaren inguruko, larrialdi planaren zein komunikazioaren inguruko informazioa helarazi.

### **3. Parte-hartzaileen ardurak**

- Aurreikusitako exigentzia fisikoa azaldu.
- Parte-hartzaileei, jardueraren burutze normalari eragin diezaioketen beraien baldintza fisikoa eta medikoa adieraztea eskatu, (banaka eta bereizirik egin dezketen nahi izatekotan)
- Parte-hartzaileei jokaera egokia eta arreta mantentzearen ardura azpimarratu.
- Taldearekin eduki dezaketen arazoak eta beraien sentzazioak arduradunei zintzotasunez aipatzea eskatu.
- Jarduera aurretik edo bitartean alkohola edo drogak hartzea ez dela komeni gogoratu.

### **4. Azken laburpena**

- Izenpeko adierazpena sinatu beharrezkoa balitz.
- Gainerako galderarik badagoen galdetu.